MAIATZAK 15, LARUNBATA

## Lilularik ez

kontzertua

*Iñaki Salvador hirukotearen eskutik*

Sutegin, 20:00h

Iñaki Salvadorrek 25 urtez egin zuen lan pianista bezala Mikel Laboarekin. "Sei" izeneko diskatik aurrera bere ondoan izan zuen eta akordeoiarekin eta sintetizagailuarekin ere lagundu zuen kontzertuetan eta grabazioetan. Mikelek beragan konfiatu zuen zenbait kanturen konponketa musikalak egiteko. 2008ko abenduan, Laboaren heriotza gertatu ondoren, Errenteriako Musikastekoak Iñakirekin harremanetan jarri ziren Mikelen musikaz bere ikuspegi partikularra landu zezan hirukote formatoan. Proposamen hori 2009ko maiatzean estreinatu zen eta Mikelen zenbait kantu ezagunekin Iñaki Salvadorrek egindako bertsioak bildu zituen, beti ere jazza oinarri hartuta, "Lilurarik ez", "Izarren hautsa", "Txoria txori", "Baga, biga, higa". **Pianoa:**Iñaki Salvador. Bateria: Hasier Oleaga. Kontrabajua: Javier Mayoz. Maiatza honetan argitaratuko da kantu hauek bilduko dituen diska.



Babeslea:
Usurbilgo Udala
Laguntzailea:
Noaua!!
www.noaua.com

**Sarrerak: Lizardin 8€ aldez aurretik, 10€ egun berean (takilan).**

# JexuxArtze

## KulturElkarteak



antolatuta...

## maiatzeko ekitaldiak